



ELKARREKIN  
GURE BIZIAK  
HOBE  
DITZAGUN



# BUDGETPARTICIPATIF64.FR

DEPARTAMENDUAK ZURE IDEIAK GAUZATZEN DITU!

**ZURE IDEIAK INTERNETEZ AURKEZTU**

uztailaren 1etik irailaren 21era [budgetparticipatif64.fr](http://budgetparticipatif64.fr) webgunean

## 1. URRATSA

2020KO UZTAILAREN  
1ETIK IRAILAREN 21ERA

**ENE IDEIA AURKEZTEN DUT**

## 2. URRATSA

2020KO UZTAILAREN  
1ETIK URRIAREN 30ERA

**LAGUNDUA ETA  
AHOLKATUA NAIZ**

## 3. URRATSA

2020KO AZARO  
ERDITIK 2021EKO  
URTARRILAREN 4RA

**ENE PROIEKTUARI BURUZ  
KOMUNIKATZEN DUT**

Osasun-krisi garaian, elkertasunezko mugimendu handi bat sustatu duzue, sortzeko gaitasuna eta nahikaria egun guzietan erakutsiz. Orain, Pirinio Atlantikoetako departamenduak bere lehen aurrekontu parte-hartzailea abiatzen du, denon zerbitzuko diren ekimenak bultzatzeko eta garatzeko ahala izan dezazuen.

**Pirinio Atlantikoetako herritarrek hurbilago eta solidarioago izaten lagun dezaketen proiektu-ideiak dituzu?** Jendearengandik hurbilago, naturatik hurbilago, belaunaldien artean solidarioago, lurraldeen artean solidarioago...

**Zure ideiak herritarren bozketara aurkez itzazu. Bozka gehien lortuko duten ideiek %100eko dirulaguntza eskuratzen ahalko dute!**

## 1/ ENE IDEIA AURKEZTEN DUT

### Nork aurkez dezake ideia bat?

- Pirinio Atlantikoetan bizi, lan egin edo ikasten ari den 11 urtetik gorako edozein pertsonak edo taldek (klase batek, familia batek...).
- Egoitza soziala Pirinio Atlantikoetan duen irabazi asmorik gabeko edozein elkartek.

### Zer ideia mota?

Zure ideia ondoko zazpi gaietako bati buruzkoa izan behar da: elkartasunak / hezkuntza / joan-etorriak / ingurumena / lurraldearen garapena / kultura / kirola.

Interes orokorra izan behar du eta ez du interes pertsonalik izan behar. Horretarako, lineako araudian zehaztuak diren hautagarritasun-irizpideak xeheki irakur itzazu:

[www.budgetparticipatif64.fr](http://www.budgetparticipatif64.fr)

Proiektuaren zenbateko osoa ez da 50.000 €-tik gorakoa izan behar, zerga guziak barne. Inbestimendu-gastuak ordaintzeko balio behar du (lanak egiteko edo materiala erosteko).

### Non aurkez dezaket ideia?

Idea bat aurkezteko, lehenik [www.budgetparticipatif64.fr](http://www.budgetparticipatif64.fr) webgunean eskuragarri den formularioa bete behar duzu. Ondotik, formularioa helarazi behar diguzu:

📄 Departamenduaren egoitzetan zure esku ezarri **hautestontzi batean** utziz. Egoitza horien helbideak hemen aurkituko dituzu:  
[www.budgetparticipatif64.fr](http://www.budgetparticipatif64.fr)

✉ **Postaz:**  
Budget Participatif,  
Hôtel du Département,  
64 av. Jean Biray, 64058 Pau cedex 09

@ **Mezu elektronikoz:**  
[budgetparticipatif@le64.fr](mailto:budgetparticipatif@le64.fr)

🚀 **Webgunetik igorritz.**

#### 4. URRATSA

2020KO AZAROAREN  
21ETIK 2021EKO  
URTARRILAREN 4RA

**GUSTUKOEN DITUDAN 3  
PROIEKTUEN ALDE BOZKATZEN DUT**

#### 5. URRATSA

2021EKO URTARRILEAN

**SARIDUNEN IZENAK  
JAKINARAZTEN DIRA**

#### 6. URRATSA

2021EKO OTSAILETIK  
2022KO EKAINERA

**ENE PROIEKTUA  
OBRATZEN DUT**

## 2/ LAGUNDUA ETA AHOLKATUA NAIZ

Departamenduko erreferente teknikoek zure ideia aztertzen dute, araudiaren irizpideak ongi betetzen dituela egiaztatzeko. Zurekin harremanetan sartzen dira, proiektuaren edukia xeheki aztertzeko eta egingarria dela segurtatzeko. Ondotik, ideia bozketara aurkezten ahal duzu.

## 3/ ENE PROIEKTUARI BURUZ KOMUNIKATZEN DUT

Zure ideia sustatzen duzu, herritarrei horren berri emanez. Departamenduak horretarako komunikazio kit bat ematen dizu.

## 4/ GUSTUKOEN DITUDAN 3 PROIEKTUEN ALDE BOZKATZEN DUT

### Non ikus daitezke proiektuak?

Proiektuak webgune honetan ikus daitezke: [www.budgetparticipatif64.fr](http://www.budgetparticipatif64.fr)

### Nork bozka dezake?

Pirinio Atlantikoetan bizi, lan egin edo ikasten ari den 11 urtetik gorako edozein pertsonak.

### Nola bozka daiteke?

Behin bakarrik bozka dezakezu, eta 3 proiektu gustukoenen alde bozkatu behar duzu, webgune honetan: [www.budgetparticipatif64.fr](http://www.budgetparticipatif64.fr)

## 5/ SARIDUNEN IZENAK JAKINARAZTEN DIRA

**Herritarren bozketan** boz gehien lortzen dituzten proiektuak izanen dira irabazleak, araudian adierazi baldintzen arabera. Departamenduak proiektuaren kostu osoa (%100) **finantzatzen du**, 50.000 €-ren mugan.

## 6/ ENE PROIEKTUA OBRATZEN DUT

Aurrekontua eskuratu orduko, departamenduarekin finantzamendu hitzarmen bat sinatzen dut eta nire proiektua berehala obratzen hasten naiz, berantenez 2022ko ekainaren 30ean bururatzeko.



## BUDGETPARTICIPATIF64.FR

Argibide guziak hemen:  
[www.budgetparticipatif64.fr](http://www.budgetparticipatif64.fr)

